



---

**ALDEZ AURREKO KONTSULTA, FORU KARGU PUBLIKOEN JARDUNA ARAUTZEN DUEN FORU ARAUAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKOA.**

Bat etorri maiztaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenak, I. eranskinaren 9. artikuluan xedatutakoarekin, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, kontsulta publikoa egin behar da goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik; kontsulta horretan, iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkaritza handieneko erakundeei, honako gai hauei buruz:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- b) Onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna,
- c) Arauaren helburuak,
- d) Ordezko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, herritarren parte hartzea eta laguntza baliabideak antolatzeko prozedura berezien arau esparrua ezarri behar duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkaritza duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, 2018ko martxoaren 8ra arte, [aurrezkontsultak@araba.eus](mailto:aurrezkontsultak@araba.eus) helbide elektronikoko postontziaren bidez.

<b>AURREKARIAK</b>	Gaur egun, diputatuen, goi kargudunen eta behin-behineko langileen araubide juridiko osoa arau hauetan dago ezarria: Foru Araua, 1983ko martxoaren 7koa, Arabako Lurralde Historikoaren erakunde antolaketari buruzkoa; 52/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzkoa; 4/2000 Foru araua, otsailaren 21ekoa, Arabako Foru Aldundiko, haren organismo autonomoetako eta foru sozietate publikoetako goi karguen eta behin-behineko langileen araubide juridikoa arautzen duena, eta 7/2008 Foru Araua, otsailaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren jardura eta
--------------------	--



	<p>ondasunen eta interesen erregistroa arautzen duena.</p>
<b>KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</b>	<p>Egoera nolakoa den ikusirik, argi geratu da ezinbestekoa dela arau barreiadura gainditzea, batez ere kontuan hartuta hainbat alderdi osatu gabe eta zaharkituta daudela. Hori dela eta, foru kargu publikoaren kontzeptua zabaldu behar da kontrol eta bermeen sisteman sartzeko foru sektore publikoko karguetan ari diren pertsona guztiak, eta haien araubidea ulertzen eta ezagutzen lagundu behar da, eta, horretarako, Aldundiaren oinarritzko araudia errespetatuz, arau tresna bakar batera bildu behar dira haien estatutu pertsonalari buruzko xedapenak eta jokabide kodeari, bateraezintasun araubideari, interes gatazkei eta jardueren eta ondasun eta interesen erregistroei buruz ezarritako guztia, foru kargu publikoen araubide juridikoaren ikuspegi artikulatu, bakar eta osoa finkatzeko, eta foru antolamendu juridikoa errazteko eta sendotzeko.</p> <p>Arabako Foru Aldundiak lanean dihardu beste gobernu eredu bat ezartzeko eta finkatzeko xedearekin, eredu horren lehentasunak izango direlarik gobernamentu ona eta administrazio jardueraren gardentasuna. Asmo horren argitan, esanahi berezia hartzen du xede batek, alegia, botere publikoek eta haren titularrek indartu dezatela beren jardueraren gardentasuna, eta, horretarako, egokia da foru kargu publikoaren araubide juridikoa eguneratzea, haien jardunaren gidari izan behar duten gardentasun eta jokabide printzipio etikoaren beharrezko sozial berriei egokituz.</p>
<b>ONARTU NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA</b>	<p>Lehen esandako hori dela-eta, ageri-agerian ondorioztatzen da ezen sustatu nahi den araugintza xedapena beharrezkoa eta egokia dela.</p> <p>Horri gehituz gero ezen 7/2008 Foru Arau horren bigarren xedapen gehigarriak aurreikusten duela ezen, bateraezintasunei</p>



	<p>buruzko autonomia erkidegoko araudia era batera edo bestera aldatu ondoren ezinbestekoa dela foru arau proiektu bat egitea, osoa eta integratzailea, foru kargu publikoen bateraezintasun, muga eta betebeharrak guztiak bilduko dituen, hartara, badagokio eguneratzea foru kargu publikoen araubide juridikoaren arauaketa.</p>
<p><b>HELBURUAK</b></p>	<ul style="list-style-type: none"><li>• 7/2008 Foru arauaren bigarren xedapen gehigarrian jasotzen den agindua betetzea, alegia foru arau proiektu oso bat egitekoa, foru kargu publikoen bateraezintasun, muga eta betebeharrak guztiak arautuko dituen.</li><li>• Foru kargu publikoaren arauetan denboran zehar hauteman izan diren hutsune guztiak betetzea, eta betebeharrak eta kautela berriak sartzea, bermatzearen ez direla gertatuko foru kargu publikoak betetzen dituzten objektibitatea, inpartzialitatea eta beregaintasuna arriskuan jarriko dituzten egoerak.</li><li>• Kargu publikoaren kontzeptua zabaltzea, kontrol eta bermeen sisteman sartzearren foru sektore publikoko zuzenbide pribatuko ente publikoetako, fundazioetako eta partzuergoetako zuzendaritza kideak.</li><li>• Arabako lurralde historikoko sektore publikoko arduradun gorenaren jardueran etikaren alderdia indartzea.</li></ul>
<p><b>ORDEZKO KONPONBIDEAK, ARAUGINTZAZKOAK ZEIN ARAUGINTZAZ BESTEKOAK</b></p>	<p>Indarrean den Arabako Foru Aldundiaren antoaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko 52/1992 Foru Arauak foru arauaren maila ezartzen du gai hori arautzeko xedapenentzat. Ez dago, beraz, araugintzaz besteko aukerarik, xedapen hau onesteko beharrezana eta egokitasuna saihesteko modukorik.</p>

